

ERRALDOI ETA BURUHANDIAK

GIGANTES Y CABEZUDOS

1999-2009

*Jose Ignacio Urbietaren omenez
En homenaje a José Ignacio Urbieto*





DEBAKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE DEBA







ERRALDOI ETA BURUHANDIAK
GIGANTES Y CABEZUDOS

1999-2009



*Jose Ignacio Urbietaren omenez
En homenaje a José Ignacio Urbieto*

aurkibidea índice

• Debako alkatearen sarrera _____	6
Introducción alcalde de Deba	
• Debako Erraldoi eta Buruhandien taldea _____	8
Comparsa de Gigantes y Cabezudos de Deba	
• Jose Ignacio Urbieto: artista oso bat _____	10
José Ignacio Urbieto: todo un artista	

• Donostia (1982) _____	16
• Deba (1984) _____	20
• Oñati (1984) _____	28
• Legazpi (1985) _____	30
• Lekeitio (1987) _____	31
• Elgoibar _____	32
• Arrasate (1988) _____	36
• Aretxabaleta (1988) _____	38
• Zarautz (1991) _____	40
• Bilbao (1988-1990) _____	42
• Basauri (1992) _____	48



A menudo, cuando en lenguaje coloquial queremos resaltar la valía y cualidades de una persona, decimos que es un “artista”.

En el caso de José Ignacio Urbietta sucedía y sucede lo mismo, pero con la diferencia de que la palabra artista del lenguaje coloquial incluye al otro artista, al dedicado a crear ARTE con mayúsculas.

José Ignacio fue un hombre especial, un hombre inquieto y siempre dispuesto a contribuir en lo que hiciese falta con su pueblo, con sus amigos.

Dando un repaso retrospectivo, nos viene la imagen del Urbietta deportista, creativo, artesano, dinamizador de cultura, incluidas la gastronómica, la musical y la melodramática de aquellos martes de carnaval en Oziobide. Pero además, fue un relaciones públicas único, de los de la vieja escuela.

A través de esta publicación, el Ayuntamiento de Deba quiere rendir homenaje al Urbietta ARTISTA en su faceta creativa de gigantes y cabezudos, un campo en el que en vida estuvo considerado como uno de los grandes maestros.

Sirva este libro para que, además de dar a conocer una parte de su obra, perdure su memoria entre nosotros.

Jesus M^a Agirrezabala Goitokia

Alcalde de Deba

Jose Ignacio

Askotan, kaleko hizkeran, norbaiten balioa eta kualitateak azpimarratu nahi ditugunean, “artista” dela esaten dugu.

Jose Ignacioren kasuan ere gauza bera gertatzen zen eta gertatzen da, baina diferentzia batekin: kale hizkerako “artista” hitzak benetako artistaren, ARTEA sortzeaz arduratzen denaren, esan nahia ere hartzen du.

Jose Ignacio gizon berezia izan zen, egongaitza, eta bere herriarekin, bere lagunekin, behar zen hartan laguntzeko beti prest zegoena.

Atzera begira jarriz gero, Urbietta kirolariaren irudia datorkigu, sortzailearena, artisauarena, kultura dinamizatzailearena (kultura horren barruan gastronomia, musika edota Oziobideko astearte inauteri haietako antzerkia ahaztu gabe)... Baina, gainera, jendearekiko harremanetan paregabea zen, eskola zaharrekoa.

Argitalpen honen bitartez Debako Udalak omenaldia egin nahi dio Urbietta ARTISTARI erraldoi eta buruhandiak sortzen egindako lanarengatik, izan ere, bizi zelarrik, maisu handienetako bat izan baitzen eremu horretan.

Balio beza liburu honek bere lanaren zati bat ezagutarazteko ez ezik, bera oroitzeko ere.

Jesus M^a Agirrezabala Goitokia

Debako Alkatea

Urbietta



*L'Ametlla del Mar (Tarragona).
Debako erraldoi eta buruhandien konpartsa Lizarrako dultzaineroekin.*

*L'Ametlla del Mar (Tarragona).
Comparsa de gigantes y cabezudos de Deba junto a los gaiteros de Lizarra-Estella.*



Atzo izan zela dirudi eta pasa dira, jada, 10 urte! 10 urte Debarren Eguneko erraldoien alardea lehenbizikoz egin genuenetik! Jose Ignacio Urbietari, erraldoi eta buruhandien sortzaile handiari, omenaldia egin genionetik! Inguruko herri askotan ikus ditzakegu, oraindik, hark egindako irudiak dantzan.

Orduan hunkigarria izan zen bere etxepean dantzatzea, zinematokiaren parean, Lersundi kalean. Eta zer aukera hobeagorik orain baino, 10 urte pasata, bere erraldoi eta buruhandi guztiak bildu eta berriz dantzan jartzeko!

Hori dela-eta, konpartsa kideok, omenaldi honetan parte hartzea eta harrobia handitzera animatu nahi zaituztegu. Urbietak sortutako irudiekin, musikaren doinuarekin bizia hartzen dutela diruditen horiekin, konpartsa luzaroan dantzan jarraitzea nahi genuke-eta.

Eskerrak eman nahi dizkiogu Urbietari familiari argitalpen hau dokumentatzeko emandako laguntzagatik; baita elkarretaratze berezi honetan parte hartuko duten konpartsa eta musikari guztiei ere.

Eta azkenik, DEBAKO JARRAITZAILE LEIALEI, haurrei eta hain haur ez direnei; kalez kale, erraldoi eta buruhandien atzetik ibiltzen direnei, finean, festa ahalbidetzen duten horie guztiei.

Eskerrik asko.

Parece que fue ayer, pero han pasado ya 10 años desde aquel primer Alarde de Gigantes del "Día del Debarra", desde aquel homenaje a José Ignacio Urbietari, gran creador de Gigantes y Cabezudos que ahora bailan por numerosos pueblos de nuestra geografía.

Entonces fue un honor bailar bajo su casa, frente al cine, en la calle Lersundi. Y qué mejor ocasión que ahora, 10 años después, para reunir todos sus Gigantes y Cabezudos, y volver a hacerlo.

Por ello, desde esta Comparsa queremos animaros a participar en este homenaje y a aumentar la "cantera", para que la Comparsa siga ofreciendo sus bailes durante muchos años, con las figuras creadas por Urbietari, las cuales parecen cobrar vida al son de la música.

Por último, queremos agradecer a la familia Urbietari por su colaboración a la hora de documentar esta publicación, y a todas las Comparsas y músicos que van a tomar parte en esta especial concentración.

Y cómo no, a ese público incondicional de DEBARRAS con mayúsculas, de niños y no tan niños, que siguen a los Gigantes y Cabezudos por nuestras calles, y que, en definitiva, son los que hacen posible esta fiesta.

Eskerrik asko.

1

José Ignacio

URBIETA



Artista oso bat
Todo un artista

José Ignacio Urbieta Egaña

Deban jaio zen, 1915eko abenduaren 24an, Lersundi kalean, Zubelzu zinema dagoen kale berean; haren gurasoek garai hartako denda tipiko bat zuten, gainera, kale hartan. Gregorio, Jose Mari eta Javiera haren anai-arrebak ere etxe berean jaio ziren.

Sormenerako gaitasun nabarmenak zituen egilea zen, erraldoiak eta buruhandiak ere fabrikatu zituen. 1941-1958 urteetan egin zituen kirol jarduerengatik ezaguna bazen ere, bere lan publiko aipagarrienak lan artistikoak dira. Oinarrizko hezkuntza bere jaioterrian jaso zuen eta Bartzelonako Sarriako salesarren ikastetxean osatu. Han, Simon Berasaluce-rekin batera aritu zen beharbada, kristalari maisu handiarekin alegia. Hura ere debarra zen eta bera baino lau urte zaharragoa.

Gerra Zibilaren ostean, futboleko jokatzeko hasi zen Deportivo Alavesen eta, 1941-1946 urteetan, Donostiako Real Sociedaden aritu zen. Osasunan beste urtebetez aritu zen, botak profesional moduan zintzilikatu aurretik. Entrenatzaile lanetan Real Sociedaden, Murtzian eta Las Palmasen aritu zen, besteak beste.



José Ignacio Urbieta Egaña

nace en Deba el 24-12-1915, en la calle Lersundi, donde se ubica el Cine Zubelzu, lugar en el que sus padres tenían una pequeña tienda típica de la época. En la misma casa nacieron sus hermanos Gregorio, José Mari y Javiera.

Fue un artifice dotado de notables capacidades creativas, que también fabricó gigantes y cabezudos. Aunque conocido por sus actividades deportivas desarrolladas entre 1941 y 1958, lo más destacable en

su actuación pública son sus trabajos de carácter artístico. Completó la educación básica, adquirida en su pueblo natal, en el Colegio Salesiano de Sarriá, en Barcelona, donde pudo coincidir con Simón Berasaluce, el gran maestro vidriero también debarra, cuatro años mayor que él.

Después de la Guerra Civil comenzó a jugar a fútbol en el Deportivo Alavés, y entre 1941 y 1946 lo hizo en la Real Sociedad de San Sebastián. Jugó un año más en Osasuna, antes de colgar las botas como profesional. Como entrenador dirigió, entre otros equipos, a la Real Sociedad, al Murcia y Las Palmas.



Jose Ignacio Urbieta, Roman Galarraga eta Patri Egidazurekin batera.

Hiru debarrak (azkena adopziozkoa), Real Sociedaden aritu ziren 1941-1946 urteetan.

Jose Ignacio Urbieta junto a Román Galarraga y Patri Eguidazu.

Los tres debarras (el último de adopción) coincidieron en la Real Sociedad entre los años 1941 y 1946.



Oziobide elkarte, Deba. Jose Ignacio Urbietak eta Eduardo Chillidak Real Sociedaden eman zituzten urteei eta zituzten kezka artistikoei esker, adiskidetasun handi eta sendoa zuten.

Sociedad Oziobide, Deba. La práctica deportiva en la Real Sociedad y las inquietudes artísticas de José Ignacio Urbietak y Eduardo Chillida, forzaron y reforzaron una gran amistad personal entre ambos.

Imajinagilea eta dekoratzailea zen; estudio-tailerrak Donostian, Gasteizen eta Deban zituen eta, bere lanen artean, nabarmen ditzakegu Debako parrokia elizako sakristiaren eta Berriatuko kupularen zaharberitze lanak.

Pablo Sorozabalen lagun handia izan zen eta Jorge Oteizaren lagun berezia egin zen, hura Deban egon zen 10 hilabeteetan, 1969an Deban zeukan Arte Eskola ezagunean lan eginez aritu zen hilabeteetan hain zuzen.

1999ko maiatzaren 17an hil zen, Debarren Egunean egin zioten omenaldiaren biharamunean; orduan ospatu zen lehen alardea erraldoiekin eta buruhandiekin.



50. hamarkada, Egaña hoteleko terraza (Deba). Ezkerrean, zirkulu batez markatuta, Pablo Sorozabal eta Jesús Guridi konpositoreak. Eskuinean, José Ignacio Urbietak.

Década de los 50, terraza del Hotel Egaña (Deba). A la izquierda, marcados con un círculo, los compositores Pablo Sorozabal y Jesús Guridi. A la derecha, José Ignacio Urbietak.

Imaginero y decorador, con estudio taller en Donostia-San Sebastián, Vitoria-Gasteiz y Deba, entre sus realizaciones, podemos destacar la restauración de la sacristía de la iglesia parroquial de Deba, y de la cúpula de la de Berriatua.

Fue gran amigo de Pablo Sorozabal, y durante los 10 meses que en 1969 duró la estancia de Jorge Oteiza en Deba, trabajando en su conocida Escuela de Arte de Deba, José Ignacio Urbietak hizo especial amistad con él.

Murió el 17 de Mayo de 1999, al día siguiente del homenaje que se le rindió el Día del Debarra con la celebración del primer Alarde de Gigantes y Cabezudos.



Erraldioen eta buruhandien fabrikatzailea

Jose Ignacio Urbietak kale animaziorako ere erabili zituen bere abildadeak; aipagarriak dira egin zituen karrozak, batzuetan Debako kondaira tradizionalak eszenifikatuz. Teknika asko ezagutzen zituen (moldekatze teknika, esaterako) eta bere irudietako bat Capak Madrilgo Argandan zuen tailer ezagunean eta Debako Arte Eskolan moldatu zuen.

Jose Ignacio Urbietak areagotu egin zituen erraldioen eta buruhandien fabrikatzaile eta zaharberitze lanak, XX. mendeko laurogeigarren hamarkadaren azken urteetatik aurrera, batik batik teknika tradizionalak baliatuz. Dena den, berritzeko zuen etengabeko gogoia zela-eta beirazko zuntza ere erabili zuen azken urteetan.

Informazio gutxi dugunez, oso zaila da bere lanak zehatz-mehatz ezagutzea. Nolanahi ere, garrantzitsuak behar zuten izan: halako lanetan espezialistak ziren artisauek eta haren lana ezagutzen dutenek etengabe aipatzen dute.

Fabricante de gigantes y cabezudos

Las habilidades de José Ignacio Urbietak también se aplicaron a la animación callejera, siendo notables las carrozas que construyó, en ocasiones escenificando tradicionales leyendas debarra. Dominaba un notable número de técnicas, entre otras el moldeo, habiendo fundido alguna de sus figuras en el conocido taller de Capa en Arganda (Madrid) y en la Escuela de Arte de Deba.

José Ignacio Urbietak intensificó su actividad como fabricante y restaurador de gigantes y cabezudos desde finales de la década de los años ochenta del siglo XX, utilizando básicamente las técnicas tradicionales, aunque su permanente afán innovador le llevó en los últimos años al empleo también de fibra de vidrio.

La escasa información disponible hace muy difícil conocer en detalle sus realizaciones, que sin duda fueron importantes, a juzgar por las constantes referencias al artista debarra de los artesanos especializados en esta actividad y de los conocedores de su trabajo.

Jose Ignacio Urbietak bere estudioan. José Ignacio Urbietak en su estudio.





Bere obra nagusien artean, hainbat udalentzat egindako pertsonaiak aipatu behar dira: besteak beste, Deba, Donostia, Legazpi, Elgoibar, Aretxabaleta, Zarautz, Oñati, Lekeitio, Arrasate, Basauri eta Bilboko udalentzat egindakoak. Asko eta asko, gainera, Urbietak berak asmatutakoak ziren. Debarako egin zituen erraldoiak, Jose Izaga "Pepe Izaga" eta Carlos Alcibar "Carlosmonte" irudikatzen zituztenak, guztien gorespena jaso zuten, erakusten erreialismo itzela eta akabera bikaina zutelako, bere obra guztiaren bidez ezaugarriak alegia.

Jose Ignacio Urbieto baita ere ezaguna zen erraldoiak, buruhandiak eta antzeko irudiak zaharberitzen eta, zenbait kasutan, eguneratzen espezialista zelako.

Artista debarrak hainbat omenaldi eta aitormen jaso zituen erraldoien eta buruhandien konpartsengandik; besteak beste, Donostian eta Deban.



Bere estudioan, Txiri, Mirri eta Txiribitoni azken ukituak ematen. En su estudio, dando los últimos retoques a Txiri, Mirri y Txiribiton.

Haurrek Jose Ignaciori omenaldia eskaintzen, Umeen Egunean (Deba) azaldutako etengabeko lankidetasunagatik.

Los niños homenajean a José Ignacio por su constante cooperación en el Día del Niño (Deba).

Entre sus principales obras deben destacarse los personajes, en muchos casos ideados y construidos por Urbieto, para los Ayuntamientos de Deba, Donostia-San Sebastián, Legazpi, Elgoibar, Aretxabaleta, Zarautz, Oñati, Lekeitio, Arrasate-Mondragón, Basauri o Bilbao, entre otros. Sus gigantes para Deba, representando a José Izaga "Pepe Izaga" y Carlos Alcibar "Carlosmonte", fueron unánimemente elogiados por su realismo y excelente acabado que caracterizaron toda su obra.

José Ignacio Urbieto fue asimismo un reconocido especialista en la reparación y en algunos casos actualización de gigantes, cabezudos y figuras similares.

El artista debarra recibió diversos homenajes y reconocimientos de comparsas de gigantes y cabezudos, entre otros lugares, en San Sebastián y Deba.



1981. urtea, Umeen Eguna (Deba). Printzea, printzesa, lekaioak eta morroiak harro agertzen dira Jose Ignacioren errege karrozaren alboan. Aita ona ez ezik, umezalea ere izan zen oso.

Año 1981, Día del Niño (Deba). Príncipe, princesa, lacayos y pajes posan orgullosos junto a la real carroza de José Ignacio. Además de un gran padre, fue un gran niñoero.





(1982) DONOSTIA

“Erraldoi eta buruhandien konpartsen jatorria, esan ohi den bezala, denboraren iluntasunean galtzen bada ere, uste da “Gaitza” uxatzeko erabili izan direla betidanik, kontsultatutako kulturaren arabera edozein izen eman izan zaiela ere.

Erraldoiek beldurtu egiten zuten, zuten tamainagatik, eta buruhandiek izutu egiten zuten, erabiltzen zituzten maskuriek. Bien bitartean, beste pertsonaia batzuk paseatu baino ez zuten egiten, beti ahaltsuen aurrean, haiei ohore eginez; bidea irekitzen zieten, arrisku oro kenduz.

Tradizionalki, erraldoiak eta buruhandiak aurretik joan izan ohi dira errege segizioetan, edota Corpuseko prozesioetan, aldareko sakramentuaren aurretik; hala joaten ziren, baita ere, pertsonaia garrantzitsuek herriak eta hiriak bisitatzen zituztenean: begirunea adieraziz harrera egitera irteten ziren eta kaleetan zehar laguntzen zieten”.

“El origen de las comparsas de gigantes y cabezudos se pierde, como habitualmente se dice, en la noche de los tiempos, creyéndose que han tenido desde siempre el significado de ahuyentar al ‘Mal’, se le denominara como se le denominara, dependiendo de la cultura consultada.

Asustaban los gigantes por su tamaño y espantaban los cabezudos con sus vejigas, al tiempo que otros personajes se limitaban al paseo, siempre delante de los poderosos, expresándoles así pleitesía, al tiempo que les abrían camino liberándoles de todo peligro.

Tradicionalmente, los gigantes y cabezudos han desfilado a la cabeza de los cortejos reales, delante del Santísimo en la procesión del Corpus o en señal de respeto cuando los más importantes personajes visitaban pueblos y ciudades, saliéndoles a recibir para acompañar su recorrido por las calles de cada lugar”.

Javier Sada (El Diario Vasco, 05-08-2007)



Debako artistaren erraldoiek kaleak animatzen dituzte, Donostiako festetan. Los gigantes del artista debarra animan las calles durante las fiestas de Donostia.

Donostiako erraldoien eta buruhandien konpartsa Jose Ignacio Urbietak eginiko lehena eta goretsiena izan zen. 1982ko abuztuaren 8an aurkeztu zuten jendaurrean, Donostiako jaien hasieran. Konpartsaren piezarik baliotsuenak kontserbatzen dira: erraldoiak; aldiz, buruhandiak galdu egin dira.

Zortzi erraldoien artean, lau bikote bereiz daitezke. Bat Katximorrok eta Arabako Biasteriko dantzarineak osatzen dute. Beste bat Nafarroako Erronkari bailarako bikote tipiko bat da. Beste bikote bat gipuzkoarrena da: baleazale oriotarra eta Pasai Donibaneko batelaria. Eta beste bat bizkaitarrena: olagizona eta erroskilagilea. Horien handitasuna dituzten aurpegiko trazuetatik eta altueratik dator (4,15 m). **Erraldoiak dira erraldoien artean.** Hala, paregabeak eta oso miretsiak dira, bai herrian bai herritik kanpo.

27 urte hauetan, Aste Nagusiak alaitu dituzte, abuztuaren erdi aldera ospatzen diren jai horien ikur bihurtu dira. Gaur egun, erabat zaharbertitzen ari dira, Jose Ignacio Urbietaren legatuak Donostiako kaleetan desfilatzen beste urte askotan jarrai dezala ziurtatzeko.

Itzurun elkarteko kideak lehen irteeratik dabilta erraldoiei bizia ematen. Donostiako Udalarekin batera, harrotasunez erakutsi eta babestu dituzte, denbora honetan guztian zehar, behar bezala baloratuak izan daitezzen.



*Urbietaren zortzi erraldoi donostiarrek, San Bizente elizaren aurrean.
Los ocho gigantes donostiarros de Urbieta, posan ante la iglesia de San Vicente.*



*... eta ondoren, dantzara.
... y tras posar, a bailar.*

La comparsa de gigantes y cabezudos de Donostia-San Sebastián fue la primera y la más alabada de las realizadas por **José Ignacio Urbieto**. Su puesta de largo llegó el 8 de agosto de 1982, con motivo del inicio de las fiestas donostiarros. Hasta hoy se han conservado las piezas más valiosas, los gigantes, habiéndose sin embargo perdido los cabezudos de entonces.

De entre los ocho gigantes, hay una pareja representando al Katximorro y a la dantzarine de Laguardia (Álava); una típica del Valle del Roncal (Navarra); otra de guipuzcoanos, figurada en un ballenero oriotarra y en una batelera de Pasajes de San Juan; y la última de vizcaínos, con un ferrón y una rosquillera. Su grandeza se debe a los marcados rasgos faciales que poseen y a su altura fuera de lo normal (4,15 m). Son **gigantes entre gigantes**. Todo ello los hace únicos y muy admirados dentro y fuera de su ciudad.

Durante estos 27 años han estado alegrando la Semana Grande, convirtiéndose en un icono de estas fiestas, que se celebran a mediados de agosto. Hoy está siendo realizada una restauración completa, asegurando que el legado de José Ignacio Urbieto seguirá desfilando por Donostia-San Sebastián durante muchos años más.

Los miembros de la Asociación Itzurun llevan desde la primera salida dando vida a las figuras que, en colaboración con el Ayuntamiento donostiarra, han lucido y protegido durante todo este tiempo para que sean valoradas como se merecen.



*Pasai Donibaneke
batelaria eta
Orioko baleazalea.*

*La batelera
de Pasai Donibane
y el ballenero
oriotarra.*



DEBA (1984)



*Debako erraldoi eta buruhandien konpartsako kideak, Lizarran.
Miembros de la comparsa de gigantes y cabezudos de Deba en Lizarra-Estella.*

DEBAKO ERRALDOI KONPARTSAREN HISTORIA LABURRA BREVE HISTORIA DE LA COMPARSA DE GIGANTES DE DEBA

Erregea eta erregina Zaragozako enpresa bati erosi zizkion Debako Udalak, 1949an.

Serieko bi figura ziren eta, ondorengo urteetan, Jose Ignacio Urbietak ukitu batzuk eman zizkien eta Pepita Beristainek (Pepita Arriolak) jantzi zituen.

1980. hamarkadaren erdi aldera, Jose Ignaciok bi erraldoi egin zituen, herriko bi pertsonaia ezagunei bizia ematen zieten bi erraldoi: bat Carlos Alcibar ("Carlosmonte") zen, Debako geltokiko maletazaina; eta bestea Izaga, bandaren zuzendaria. Haiiek ere Pepita Beristainek jantzi zituen.

El Rey y la Reina son dos figuras compradas a una empresa de Zaragoza por el Ayuntamiento de Deba, en el año 1949.

Se trataba de dos figuras de serie, que en años posteriores fueron retocadas por José Ignacio Urbieto, y vestidas por Pepita Beristain (Pepita Arriola).

A mediados de la década de 1980, José Ignacio hizo dos gigantes que daban vida a dos personajes conocidos del pueblo: uno fue Carlos Alcibar, conocido como "Carlosmonte", maletero de la estación de Deba, y el otro era Izaga, director de la banda, a quienes también los vistió Pepita Beristain.



Herriko zenbait gaztek haiekin egin zuten dantza eta arteera batzuk ere egin zituzten, garrantzitsuena Tarragonara, non erraldioen erakusketa garrantzitsu batean parte hartu zuten.

1998ko San Roke jaietan, debar talde berri bat sortu zen, aurrekoen erreleboa hartu zuena.

1999an, errege-erreginen 50. urteurrena zela eta, alarde bat deitu zuten “Debarren Egunerako”, eta herri askok hartu zuen parte. Harrezkero, egun hori aukera ona izan da hainbat herri-tako konpartsak biltzeko eta horietako askoren artean hartu-eman jatorrak hasteko. Debako konpartsa beste herri eta festa batzuetara joaten hasi zen, eta merezi duen garrantzia berreskuratu du.

2005. urteaz geroztik, Debako erraldoiek San Roke gure patrioiari ere laguntzen diote abuztuaren 16ko prozesioan. Egun seinalatua da hori herriko guztientzat.

Urte berean, konpartsak kideek pentsatu zuten erraldoi kopurua handitzea eta beste txikiago batzuk egitea, umeez dantzatu zituzten. Guillermo Berasalucerekin hitz egin zuten eta hark lan bikaina egin zuen, herritar guztiak harrিতuta utzi zituen; bi erraldoi egin zituzten, Lizarrako bi dultzai-neroentzako omenaldi gisa: Salvador Martínez eta Juan Carlos Duñabeitia. Dultzainero haiek hamaika aldiz izan ditugu gurekin, 1985. urtetik jotzen baitute herriko San Roke jaietan.

Varios jóvenes del pueblo bailaron con ellos e hicieron algunas salidas, la más importante a Tarragona, donde participaron en un importante alarde de gigantes.

En San Rokes del año 1998 surgió un nuevo grupo de debarras que tomó el relevo de los anteriores.

En 1999, con motivo del 50 aniversario del Rey y la Reina, se convocó un alarde para el “Día del Debarra”, en el que participaron numerosos pueblos.

A partir de ese año, este día ha sido una buena ocasión para reunir varias comparsas de diferentes localidades, entablándose una cordial relación con muchas de ellas. La comparsa de Deba empezó a visitar otros pueblos y fiestas, y ha recobrado la importancia que se merece.

Desde el año 2005, los gigantes debarras también acompañan a San Roke, nuestro patrón, en la procesión del día 16 de agosto, día señalado para todos los habitantes de la localidad.

Ese mismo año, los componentes de la comparsa pensaron en aumentar el número de gigantes y construir unos más pequeños para que pudieran bailar los niños. Se habló con Guillermo Berasaluce, y su brillante trabajo (que sorprendió a todos los debarras) culminó con la realización de dos gigantes que homenajeaban a los gaiteros de Lizarra-Estella, Salvador Martínez y Juan Carlos Duñabeitia, quienes tantas veces nos han acompañado, y que tocan en las fiestas patronales de San Roke desde el año 1985.



Pepe Izaga eta Carlosmonte mitikoen irudiak harro, errege-erreginekin. Las figuras de los míticos Pepe Izaga y Carlosmonte se codean orgullosos con la realeza.

Palenciako Ivan de Leon izeneko artisaubati ere lau buruhandi egiteko eskatu zioten (*Zezena, Zuhaitza, Iratxoa eta Sorgina*), eta baita erraldoi handientzako traje berriak egiteko ere. Buruhandi haiek 2005eko San Roke jaietan aurkeztu ziren jendaurrean, eta erraldoiekin batera dantzatu zituzten.

Azken urte hauetan, Debako erraldioen eta buruhandien konpartsa Kataluniako, Soriako, Burgoseko, Nafarroako, Gipuzkoako... hainbat herritara joan da eta sari asko irabazi ditu.

2008ko San Roke jaietan, beste lau buruhandi jaio ziren, kolore ikusgarrieekin eta lehendik zeudenak baino arinagoak, txikiak konpartsaren aurretik korrika joan zitezten: *Paletas, Chancletas, Tony eta Maguila*. Guztiak Irungo artisaubatek egindak ziren, Xabier Garatek.

Se encargó también a un artesano de Palencia, Ivan de León, la construcción de cuatro cabezudos (*Toro, Arbol, Duende y Bruja*), así como la confección de trajes nuevos para los gigantes grandes. Estos cabezudos fueron presentados en las fiestas de San Roke de 2005, bailando junto con los gigantes.

Durante estos últimos años, la Comparsa de Gigantes y Cabezudos de Deba ha visitado pueblos de Cataluña, Soria, Burgos, Navarra, Gipuzkoa... habiendo obtenido numerosos premios.

En San Rokes de 2008 vieron la luz otros cuatro cabezudos, de un vistoso colorido, más ligeros que los existentes, para que los más pequeños pudieran correr delante de la comparsa: se trata de *Paletas, Chancletas, Tony y Maguila*, todos ellos realizados por Xabier Garate, artesano de Irún.

• ERREGE ETA ERREGINA - EL REY y LA REINA

Errege-erreginak Zaragozako enpresa bati erosi zizkion Debako Udalak 1949. urtean. Serie bateko bi irudi ziren eta Pepita Beristainek (Pepita Arriola) jantzi zituen. Gerora Jose Ignacio Urbietak egin zizkien beharrezko zitutzen ukitu edo konpocketak.

El Rey y la Reina son dos figuras compradas a una empresa de Zaragoza por el Ayuntamiento de Deba en 1949. Eran dos figuras de serie, y fueron retocados posteriormente por José Ignacio Urbietak, y vestidas por Pepita Beristain (Pepita Arriola).

• CARLOSMONTE

Carlosmonte 1892an jaio eta 1968an hil zen. Debako tren geltokiko maletazaina zen. Garai hartan Deba oso turistikoa zen eta dirudun jende ugari heltzen zen Madrietik, Bizkaitik... Maletazaina oso ezaguna egin zen haien artean. Carlosmonte eta Izaga, Jose Ignacio Urbietak egin zituen.

Carlosmonte nació en 1892 y murió en 1968. Fue maletero de la estación de tren de Deba. En aquellos años, Deba era destino turístico y allí llegaban gente acaudalada, de Madrid, Bizkaia..., por lo que nuestro maletero se convirtió en un personaje muy conocido por todos. Izaga y Carlosmonte fueron construidos por José Ignacio Urbietak.



Carlosmonte

Errege eta Erregina.
El Rey y la Reina.

José Izaga Garaizabal

IZAGA

Jose Izaga Garaizabal, Oñatin jaio zen 1888an. Musika ikasketak egin eta Banda Zuzendaritzan sartu zen. 1913an etorri zen Debara Udal Bandako Zuzendari moduan.

Bandako zuzendaria izan zen 1936ko uztailera arte, gerra zibilatik Debatik alde egin zuen arte.

Kargutik kendu zuten, "bere funtzioak bertan behera lagatzeagatik" eta zigortu Errejimenaren aldekoa ez izateagatik.

50garrenean (birgaitu eta gero), Legazpi, Cenicero (Errioxa) eta Lekeitioko Bandetako zuzendari postuak eskatu zituen, baina gaisotasunagatik laga egin behar izan zuen bere lanbidea.

Deban hil zen 1958. urtean 70 urte zituela.

Jose Izaga Garaizabal, nace en Oñati en 1888. Estudió música e ingresó en el cuerpo de Directores de Banda. En 1913 vino a Deba como Director de la Banda Municipal y profesor de música.

Fue Director de la Banda hasta julio de 1936, cuando por la guerra civil, tuvo que dejar Deba.

Fue cesado en su puesto por "abandono en sus funciones", y sancionado por no ser adicto al Régimen.

En los años 50, después de rehabilitarse, solicitó las plazas de Director de las Bandas de Legazpi, Cenicero (La Rioja) y Lekeitio, pero por enfermedad tuvo que dejar su profesión.

Murió en Deba en 1958, a los 70 años de edad.



Debako jaiak. Erraldoiak, buruhandiak, konpartsa eta dultzaineroak... familia handi bat.

Fiestas de Deba. Gigantes, cabezudos, comparsa y gaiteros... una gran familia.

BURUHANDIAK - CABEZUDOS

Zezena - Zuhaitza - Iratxoa - Sorgina

Lau buruhandi hauek Palentziako Ivan de Leon Blancok egin zituen, baita jantzi ere, 2005eko San Rokeetarako. Erraldoi handiak gaur egun dituzten jantziak ere berak egindakoak dira.

Paletas (pailazoa) - Chancletas (pailazoa) - Tony (tigrea) - Maguila (tximua)

Lau buruhandi hauek, Xabier Garate irundarrak egin zituen 2008ko San Rokeetarako eta Miriam Martinek jantzi ditu.



Salvador Martínez eta Juan Carlos Duñabeitia, bere errepliken ondoan. Guillermo Berasalucek egin zituen erreplikak.
Salvador Martínez y Juan Carlos Duñabeitia junto a sus réplicas, realizadas por Guillermo Berasaluce.

SALVADOR MARTÍNEZ JUAN CARLOS DUÑABEITIA

Lizarrako gaiteroak, Debako erraldoiei hainbat eta hainbat aldiz beraien irteeretan lagundutakoak.

Erraldoi txiki bi hauek, Guillermo Berasalucek egin zituen, 2005eko Debarren Egunerako.

Luisa Carrascok jantzi zituen.

Gaiteros de Estella que acompañan a la Comparsa de Deba en muchas ocasiones.

Estos gigantes txikis los construyó Guillermo Berasaluce para el Día del Debarra del año 2005.

Los vistió Luisa Carrasco.



Juan Carlos Duñabeitia

Salvador Martínez



Toro - Arbol - Duende - Bruja

Estos cuatro cabezudos los fabricó para San Rokes de 2005 Iván de León Blanco, artesano de Palencia, quien se encargó también de vestirlos. Hizo además las ropas que los cuatro gigantes grandes llevan actualmente.

Paletas (payaso) - Chancletas (payaso) - Tony (tigre) - Maguila (mono)

Estos cuatro cabezudos los fabricó Xabier Garate, de Irún, para las fiestas de 2008 y han sido vestidos por Miriam Martín.

OÑATI

(1984)



Oñatiko erraldoiak Jose Ignacio Urbietak egin zituen, 1984an, Oñatiko Udalak eskatuta.

Oñatiko Jauna eta Andrea (Gebarako kondeak) irudikatzen dituzte, herri horretako historian berebiziko garrantzia izan duten pertsonaiak. Oñati, garai batean, jaurerria zen eta, 1845ean, Gipuzkoari anexionatu zitzaion.

Ezin izan da zehaztu nor den irudikatua dagoen Jauna; baina, litekeena da Pedro Vélez de Guevara edo Iñigo Vélez de Guevara izatea, bere ezkonlagunarekin.

Urbietaren lanetan ohikoa zen moduan, oso-oso deigarria da bi irudiek duten akabera fina, eta, baita ere, haien jantzietan erabilitako oihalen eta apaingarrien kalitatea. Kasu honetan, inoiz baino arrazoi gehiagorekin, pertsonaien noblezia nabarmentzeko.

Bi irudi horiez gain, Urbietak Txirri, Mirri eta Txiribiton buruhandiak egin zituen. Horiek oso estimatuak dira haurren artean eta beste herri batzuentzat ere egin zituen (Arrasate eta Zarautz).


Los gigantes de Oñati fueron realizados por José Ignacio Urbietak en 1984, a petición del consistorio municipal oñatiarra.

Representan al Señor y a la Señora de Oñate (los Condes de Guevara), personajes de gran trascendencia en la historia de esa población, antiguo Señorío anexionado a Guipúzcoa en 1845.

No se ha podido determinar a cuál de los Señores representan, pero probablemente se trate de Pedro Vélez de Guevara o de Iñigo Vélez de Guevara y sus respectivas consortes.

Como era habitual en las realizaciones de Urbietak, llama poderosamente la atención el fino acabado de ambas figuras, así como la calidad de las telas y adornos utilizados en sus vestimentas; en este caso, más que nunca justificado para resaltar la nobleza de los personajes.

Además de estas dos figuras, Urbietak elaboró los cabezudos Txirri, Mirri y Txiribiton, personajes muy demandados por el público infantil y realizados también para otras poblaciones como Arrasate y Zarautz.



5

LEGAZPI (1985)

Laurogeigarren hamarkadan, Urbietak bi irudi egin zituen Legazpiko Udalarentzat. Bikote baserritar bat egin zuen. Ohiko erraldoiak (3,5 metro inguru) baino zerbait txikiagoak ziren.



En la década de los ochenta, Urbietta realizó dos figuras para el Ayuntamiento de Legazpi. Se trataba de una pareja de baserritarras, cuyo tamaño era algo menor que el de los gigantes habituales, que suele rondar los 3,5 metros.

6

LEKEITIO (1987)

Urbietak Lekeitioko Udalarentzat 1987an egin zituen bi irudiek Terentzio jauna eta Tomasa andrea irudikatzen zituzten. Egin zituenean, Udalak bi pertsonaia haien beste bi irudi bazituen, "Aragonesa de Fiestas" enpresak urte batzuk lehenago fabrikatuak; baina, oso hondatuta zeudenez, bi irudi berri egitea erabaki zuen.

Esan izan denez (dirudienez, oker), erraldoi berriak Zaragozako enpresak ere egin zituen; beste datu batzuen arabera, ordea, Urbietak egin zituen: erreplikak berdin-berdinak ziren. Horren arrazoia hau izan liteke: Jose Ignacioren asmoa kopia zehatza egitea zen; izan ere, erraldoi berriak Lekeitioko kaleetan dantzatzera atera zituztenean guztiek pentsatu zuten lehengoak zirela.



Las dos figuras realizadas en 1987 por Urbietta para el Ayuntamiento de Lekeitio, representan a los personajes Don Terentzio y Doña Tomasa. En el momento de su realización, el consistorio contaba con otras dos figuras de ambos personajes, fabricados años antes por la empresa "Aragonesa de Fiestas", pero debido a su mal estado de conservación se tomó la decisión de realizar dos nuevas unidades.

Se ha especulado, al parecer erróneamente, que los nuevos gigantes también fueron realizados por la citada empresa zaragozana, pero otros datos avalan la autoría de Urbietta: las réplicas eran idénticas. La explicación podría encontrarse en el propósito de José Ignacio de realizar una copia exacta, cosa que logró, puesto que cuando salieron los nuevos gigantes a recorrer las calles lekeitiarras, todos pensaron que se trataba de los antiguos.

ELGOIBAR

1980. hamarkadan, Urbietak hainbat irudi egin zituen Elgoibarko Udalarentzat, erraldoiak batzuk eta buruhandiak beste batzuk. Erraldioen artean, lau oso garaiak ziren eta erregea, erregina eta Altzolako Jauna eta Andrea irudikatzen zituzten. Altzolako Jauna eta Andrea herriko pertsonaia garrantzitsuak eta merkataria ahaltsuak ziren, XVI. mendean. Garaiera ertaineko erraldoiak elgoibartarren artean ezaguna zen pertsonaia bat irudikatzen du: "buru gogorra".

Buruhandiek Disney-ren pertsonaia ezagunak irudikatzen dituzte: "Donald ahatea" eta ipotxetako bat.

Durante los años 80, Urbietak realizó para el Ayuntamiento de Elgoibar varias figuras, tanto de gigantes como de cabezudos. De los gigantes, cuatro fueron de gran alzada y representaban al Rey, a la Reina y al Señor y Señora de Altzola, estos últimos, importantes personalidades locales y poderosos mercaderes del siglo XVI. El gigante de mediana alzada representa a un personaje popularmente conocido en Elgoibar como "el cabezón".

Los cabezudos corresponden a los conocidos personajes de Disney "El Pato Donald" y uno de los enanitos.



San Bartolome jaiak, Elgoibarren. Erregeak dantzan, Altzolako jaun-andreen ondoan, Foruen plazan. Fiestas de San Bartolomé de Elgoibar. Los reyes danzan junto a los señores de Altzola en Foruen Plaza.





Urbieta ren erraldoiak Elgoibarko kaleak animatzen.
Los gigantes de Urbieta animan las calles de Elgoibar.


(1988) ARRASATE

1988an, Arrasateko Udalak hainbat irudi egiteko eskatu zion Urbietari. Haietatik handiena "erraldoia" da, Mari, Anbotoko dama, pertsonaia mitologikoa irudikatzen duena. Beste irudi batek kondairetako dragoia irudikatzen du. Herriari hortik datorkio izena: Mont Dragón (dragoiaren mendia). Herriko armarrian ere dragoia agertzen da.

En 1988 el Ayuntamiento de Arrasate-Mondragón encargó a Urbietta la realización de una serie de figuras. De todas ellas, la mayor corresponde a la "giganta" que encarna al mitológico personaje de "Mari", La Dama de Anboto. Otra de las figuras representaba al legendario dragón del que la villa recibió el nombre: Mont Dragón (Monte del Dragón), y que aparece reflejado en el escudo de esta población.



Mari. Anbotoko Dama.
Mari. La Dama de Anboto.



Dragoia.
El Dragón.

Gainerako irudiek (buruhandiek) hainbat pertsonaia irudikatzen dituzte, batzuk herrikoak.

Horieta bik Antonio Cánovas del Castillo, 1917an Arrasaten hil zuten Espainiako gobernuburua, eta Michelle Angiolillo anarkista italiarra, haren hiltzailea, irudikatzen dituzte.

El resto de figuras, todas ellas cabezudos, corresponden a diversos personajes, algunos de ellos locales.

Entre las figuras, dos de ellas representan a Antonio Cánovas del Castillo, Jefe del Gobierno de España muerto en Arrasate en 1897, y a su asesino, el anarquista italiano Michelle Angiolillo.



Udaltzaina - Alguacil.



Ipotxa.
Enano.



Olagizona.
El ferrón.



Baserritarrak - Los aldeanos.

Antonio
Cánovas
del Castillo.

Michelle Angiolillo
(Cánovasen hiltzailea.
El asesino de Cánovas)

9

ARETXABAETA

(1988)

Hiru buruhandien irudiak 1988an egin zituen Aretxabaletako Udalarentzat. Horietako bik dagoeneko hilda dauden pertsonaia ezagunak irudikatzen dituzte: Pablo Urkia "Litri" eta Bernabé Makazaga. Biak mutilzaharrak ziren eta parrandazale fama zuten.

Hirugarren irudiak Jon Ander Loidi ("Bili") irudikatzen du, Aretxabaletako hurrek asko maite omen zuten pertsonaia.

Hiru irudiak oso errealismo handiz eginda daude, "Valentziako Eskola"-ren tankeran. Urbietak hartu-eman handia izan zuen eskola harekin.

Pablo Urkia, "Litri"


Bernabé Makazaga



Las figuras de estos tres cabezudos fueron realizadas en 1988 para el Ayuntamiento de Aretxabaleta. Dos de ellas representan a populares personajes ya fallecidos: Pablo Urkia, "Litri", y Bernabé Makazaga, ambos "mutilzarras" y con fama de juerguistas.

La tercera figura representa a Jon Ander Loidi, "Bili", un personaje al parecer muy querido por los niños de Aretxabaleta.

Las tres figuras están realizadas con un gran realismo, muy al estilo de la "escuela valenciana" con la que Urbietak siempre tuvo grandes contactos.



Jon Ander Loidi, "Bili"

10

ZARAUTZ (1991)

1991n, Urbietak lau erraldoi irudi egin zituen Zarauzko Udalarentzat, bi gizonezko eta bi emakumezko. Tamalez, guztiak desagertu egin ziren 2004an, gordeta zeuden udal instalazioetan sutea gertatu zenean.

Aurrez Oñatirentzat eta Arrasaterentzat egin zuen moduan, Urbietak Txirri, Mirri eta Txiribiton pallazo ezagunen hiru irudi egin zituen Zarautzentzat.



En 1991 Urbietta realizó para el Ayuntamiento de Zarautz cuatro figuras de gigantes, dos masculinas y dos femeninas. Desgraciadamente, todas ellas desaparecieron en 2004 a raíz de un incendio ocasionado en las instalaciones municipales donde se guardaban.

Al igual que anteriormente lo había hecho para Oñati y Arrasate, Urbietta realizó para Zarautz tres figuras correspondientes a los conocidos payasos Txirri, Mirri y Txiribiton.



BILBAO (1988)

Bilboko erraldoiei buruzko lehen erreferentziak Santísimo Sacramento de Santiago Kofradiako kontu liburu batean agertzen dira, 1654an. Erraldoiak lau ziren, eta liburuan agertzen diren datuekin, zaila da ziur esatea zein motatako pertsonaiak ziren.

Bi bidaiari atzerritarri esker, Christian August Fischer eta Von Jarigues, dauzkagu lau pertsonaien lehen deskribapenak XVIII. mendearen amaiera eta XIX. mendearen hasiera aldera. Lehenengoaren arabera, 1797an erraldoiak bi gizon eta bi emakume ziren, aurpegiera bitxikoak. Argizarizko ileorde luzeak zeuzkaten eta kolorezko argizari-paperez egindako orrazkerak. Von Jarigues-en deskribapenak zur eta lur uzten gaitu sei erraldoi zeudela esaten duenean, oraindik itxura harrigarri eta bitxiagoekin.

1852an, Teófilo Guiard-ek datu gehiago eman zizkigun. Honen esanetan: "Lau erraldoi berriak zaharren modu berean jantzi zituzten, eta bi irudi berri erantsi zitzaizkien. Beraz, oraingo sei berriak Europa, Asia eta Afrikako ordezkari izatea nahi izan zen".

Garaiko programetako erreferentzien arabera, erraldoi hauek eta berriago batzuk gutxienez 1876 eta 1885 artean mantendu ziren. 1886an hiriko kaleak alaitzeari utzi zioten, Gernikan erre baitziren. Halaxe gogoratzen du Miguel de Unamunok bere testue-tako batean.

1896tik aurrera, belaunaldi desberdinen konstantzia daukagu, bai idatzizko dokumentuen bitartez eta baita argazki bidez ere. 1896an osatutako belaunaldian ikusten diren erraldoiak ondokoak dira: Don Terencio eta Doña Tomasa, el Aldeano eta la Aldeana, el Turco eta la Mora eta beltz amerikarrak.

1934an, Radio Emisora Bilbaina-ren ekimenez, hurrengo konpartsa egin zen, ondokoek osatua: Don Terencio eta Doña Tomasa, el Aldeano eta la Aldeana, el Turco y la Mora eta txinatar bikote bat.

1962ko abuztuaren 19an, Radio Bilbao-ri esker, erraldoiak berriz agertu ziren. Klasikoak mantendu ziren, esaterako Don Terencio eta Doña Tomasa, el Aldeano eta la Aldeana, el Turco, la Mora. Gainerakoak desagertu egin ziren eta Bilboko kantu herrikoietan oinarritutako pertsonaia berriak sortu, besteak beste, el Inglés eta la Bilbainita, el Angulero eta la Sardinera.

*La Aldeana eta el Aldeano.
La Aldeana y el Aldeano.*



Las primeras referencias sobre los gigantes en Bilbao aparecen en el libro de cuentas de la Cofradía del Santísimo Sacramento de Santiago, en 1654. Los gigantes son cuatro y por las cuentas no se puede asegurar qué tipo de personajes son.

A finales del siglo XVIII y principios del XIX serán dos viajeros extranjeros, Christian August Fischer y Von Jarigues, los que nos proporcionen las primeras descripciones de los cuatro personajes. Según el primero, "en 1797 son dos hombres y dos mujeres con fisonomías grotescas, portando pelucas largas de cera y tocados de papel encerado colorado". El segundo nos sorprende diciendo que su número es de seis, con las trazas más sorprendentes y grotescas.

En 1852, según Teófilo Guiard, "fueron vestidos los cuatro gigantones nuevos como lo estuvieran antes los viejos, y añadidos dos figurones más, con que los seis de ahora se quiso que representasen, por parejas, a Europa, Asia y África".

Según referencias de programas de la época, estos gigantes u otros nuevos se mantuvieron por lo menos en el período comprendido entre los años 1876-1885. Luego nos recordará Miguel de Unamuno en uno de sus textos que estos perecerían quemados en Gernika, después de alegrar las calles de la villa en el año 1886.

A partir de 1896, tenemos constancia de las diferentes generaciones tanto por la documentación escrita como gráfica, y así tenemos la construida en 1896, en la cual podemos ver que los gigantes son: Don Terencio y Doña Tomasa, el Aldeano y la Aldeana, el Turco y la Mora y los negros americanos.

En 1934 a iniciativa de Radio Emisora Bilbaína se construye la siguiente y que estará formada por Don Terencio y Doña Tomasa, El Aldeano y la Aldeana, el Turco y la Mora, y una pareja de Chinos.

El 19 de Agosto de 1962, gracias a Radio Bilbao, reaparecen los gigantes. Se mantienen los clásicos Don Terencio y Doña Tomasa, el Aldeano y la Aldeana, y aparecerán unos nuevos personajes basados en el cancionero popular bilbaíno, como son el Inglés y la Bilbainita, el Angulero y la Sardinera, desapareciendo, el Turco, la Mora, etc.

Doña Tomasa.

Don Terencio.



Zumalakarregi.





Aste Nagusiko festekin batera 1980an erraldoi berriak egiteko ideari heldu zitzaion berriro. Oraingoan, Pedro Goiriena, "Cómicos de la Legua"-koa izango da horiek egiteko arduraduna. Pertsonaietan aldaketak egin ziren berriro, eta konpartsa horrelaxe osatu zen: don Terencio eta doña Tomasa, el Aldeano eta la Aldeana, el Inglés eta la Bilbainita, el Minero edo Ferrón, Santutxuko puru saltzailearekin batera, la Carguera eta el Marino, eta Zumalakarregi eta Isabel II.a.

1988an, erraldoiak eta buruhandiak hondatzen ari zirela eta, Jose Ignacio Urbietari eman zitzaion berriak egiteko ardura, eta horretarako aurreko belaunaldiko pertsonaietan oinarritu zen.

1998an, Athletic-en ordezkari izango den bikote berri bat sortu zen, 100. urteurrena zela eta, Pitxitxi eta honen bikote Mina. Liburuxka honetan ageri diren pertsonaiak gaur egun daudenak dira.




El Marino.



La Carguera.



El Ferrón.



Isabel II.



Con las fiestas populares de la Aste Nagusia, en el año 1980, se retoma la idea de hacer nuevos gigantes. En esta ocasión será Pedro Goiriena, de "Cómicos de la Legua", el encargado de su construcción, volviendo a haber cambios de personajes y configurándose la comparsa de la siguiente manera: don Terencio y doña Tomasa, el Aldeano y la Aldeana, el Inglés y la Bilbainita, el Minero o Ferrón junto a la cigarrera de Santutxu, la Carguera y el Marino, y completándose con Zumalakarregi e Isabel II.

Nuevamente en 1990, y ante el deterioro de los gigantes y cabezudos, se encarga a José Ignacio Urbietta la fabricación de unos nuevos, para lo cual se basará en los personajes de la generación anterior.

En 1998 se añadirá una pareja nueva basada en los personajes de Pichichi y su pareja Mina, representativa del Athletic, y conmemorativa de su centenario.



La Cigarrera.
Santutxuko tabako lantegiko langileen ordezkaria da.

La Cigarrera.
Representa a las trabajadoras de la tabacalera de Santutxu.

José Ignacio Urbieta
Especialidad en Imágenes, Altares, etc. Pintura, Dorado y Policromado
Se restauran trabajos antiguos y Retablos de todas clases
Lersundi, 4 - Teléfono 19 10 68

DEBA, 16 de MAYO de 1994

EXCMO. AYUNTAMIENTO DE BILBAO
Dpto. Cultura y Turismo
Att. Mariví Zabaleta

Por la construcción de 2 gigantes de 4m. de altura totalmente terminados:

representan: - INGLÉS Y CORREGIDOR.

- Cabeza, cuerpo, brazos y piernas en poliéster, caballete de tubo de hierro y correa en los hombros con su correa y cabezal.

- Vestuario de acuerdo con el modelo.

Precio por Gigante	575.000 Ptas.
Dos Gigantes	1.150.000 Ptas.
Total	1.150.000 Ptas.



El Inglés eta La Bilbainita, bere bikotea.
El Inglés y su pareja, la Bilbainita.

GARGANTUA

Bilbon ezagutzen den lehen Gargantua 1854koa da eta Echaniz hura suhiltzaile ospetsuak eraiki zuen. Gargantua bonba batek txikitu zuen lehen gerra karlistan.

Urte batzuk beranduago, berri bat egin zuten, baina beste jantzi batekin; aurrekoa frantses erara janzten zen. 1896an aurkeztu zuten jendaurrean, Bilboko erraldoi eta buruhandi berriekin batera.

XX. mendeko lehen Gargantua Valentzian egin zuten, 1970eko hamarkadan. Erraldoi handi bat zen, haserre aurpegiarekin. Urte batzuk geroago, abandonatuta zegoela eta, Udalak Pedro Goirienari eskatu zion konpontzeko eta 12 erraldoi eta buruhandi sortzeko Bilbo-arentzat.

Bigarren Gargantua Jose Ignacio Urbietak (Deba) egin zuen. Askoz modernagoa zen: haurrak irensteaz gain, mugitu ere egin zitekeen (eskuak, begiak...). Aurrekoa baino handiagoa zen eta komiki aurpegia zuen; gainera, hura baino potoloagoa zen eta aurpegi graziosoagoa zeukan.

Gargantua Bilboko jaietan.
Gargantua en las fiestas de Bilbao.



El primer Gargantua del que se tiene noticia en Bilbao data de 1854 y fue construido por el famoso bombero bilbaíno, Bombero Echaniz. Este primer Gargantua fue destruido por una bomba durante la guerra carlista.

Años más tarde se crea uno nuevo, cambiándole de vestimenta, ya que el anterior vestía al estilo francés. Es presentado en 1896 junto a los nuevos gigantes y cabezudos de la villa.

El primer Gargantua del siglo XX fue realizado en Valencia, en los años 70, y se trata de un gigantón, con cara de enfadado. Años más tarde, y debido a su estado de abandono, el ayuntamiento encarga a Pedro Goiriena que lo arregle y que también cree 12 gigantes y cabezudos para Bilbao.

El segundo Gargantua es creado por José Ignacio Urbieta (Deba). Se trata de una obra mucho más moderna, ya que aparte de tragar niños, también se puede mover (las manos, los ojos...). Es más grande que el anterior y tiene cara de "comic"; además, es más gordito y con una cara mucho más graciosa.

BASAURI (1992)



Eskarabillera.
La Eskarabillera.



Olagizona.
El Ferrón.



Basauriko San Fausto jaiak. Erraldoi eta buruhaundien konpartsa.
Fiestas de San Fausto en Basauri. Comparsa local de gigantes y cabezudos.

Basauriko Udalak erraldoi bikote bat dauka, Jose Ignacio Urbietak 1992an egina. Bikoteak udalerriri lotutako bi pertsonaia irudikatzen ditu: eskarabillera eta olagizona.

El Ayuntamiento de Basauri dispone de una pareja de Gigantes, construidos por José Ignacio Urbieto, en 1992. Esta pareja representa a dos personajes vinculados con el municipio: la Eskarabillera y el Ferrón.

